

Abenduak 1a: HIESaren aurkako Munduko Eguna


2015ean, Giza Inmunoeskasiaren Birusak (GIB) eragindako 34 infekzio berri egon ziren 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean

HIESaren aurkako Munduko Eguna dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak Eusko Jaurlaritzako HIESaren Prebentzio eta Kontrolaren Planak GIB infekzio berriei buruz emandako datuak aurkezten ditu.

Datuon arabera, 2015ean, Euskadin, 151 GIB infekzio berri egon ziren. Horietatik, 34 infekzio berri 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean eman ziren, hau da, guztien % 22,5a.

GIB infekzio berrien bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu zenbaki absolutuetan ez dela antzematen joera nabarmenik baina poztekoa da 2015ean azken hamabost urtetako zenbaki baxuenetarikoa lortu izana.

Azkenik, argi dago fenomeno honek gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino presentzia handiagoa duela. Izan ere, 2015ean 34 GIB infekzio berri agertu baziren, 27 gizonen artean gertatu ziren, guztien % 79 hain zuzen ere.



GIB infekzio berrien tasa, gazteen artean, 1,2koa da, adin-talde bereko 10.000 laguneko. Tasa hori mutilen artean 1,9koa da; nesken artean, aldiz, 0,5koa.

Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan **osasunari** eskaintzen zaion atalean, GIB infekzio berriei dagozkien datuak aurki daitezke.